

Lagun Bat (Haur Kanta)

Bada gorroto dudan lagun bat.
Zuhaitzean gora egin nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“laprast eroriko zara lurrera”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Futbolean jolastu nahi dudanean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ipurdi azpitik sartuko dizute gola”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Gustuko neskarengana hurreratzean
“ez, ez, ez, hobeto ez,” esaten dit,
“ez du zurekin nahiko berak”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Anaia txikiari musu eman nahi badiot
“ez, ez, ez, hobeto ez” esaten dit
“esnatu egingo duzu umea”.

Bada gorroto dudan lagun bat.
Lagun horren izena Lotsa da.
“Ez, ez, ez, inola ez” esaten diot gauero
“bihar, bihar ez dizut kasurik egingo bada”.



Kirmen Uribe, Rafa Rueda, Mikel Urdangarin,
Bingen Mendizabal

*Hitzak: Kirmen Uribe
Musika: Mikel Urdangarin*

7. Aurrean dugun informazioarekin, “Lagun bat” kantari dagokionez, zer ondorioztatu ahal dugu?
- A. Antzinako herri-kanta da.
 - B. Kirmen Uribek asmatutako poema da.
 - C. Bingen Mendizabalen bertsoa da.
 - D. Poema anonimo bat da.

8. Hitzak irakurri eta gero, Kasu honetan esaten dutena benetan sinetsi behar dugu?

- A. Ez, abestietan ez diogu letrari kasurik egin behar.
- B. Bai, lagunak gorrota ditzakegu.
- C. Ez, ezin dugu hartu "gorroto" bere zentzu estuan.
- D. Gorroto erabiltzen du errimarengatik.

9. Testu honek baditu:

- A. 20 lerro eta 5 ahapaldi (edo estrofa)
- B. 20 ahapaldi eta 5 bertso.
- C. 5 paragrafo.
- D. Errima zorrotzeko bertsoak.

10. Estrofa hauen egitura bada:

- A. Errepikatzen duen bertsoa, ekintza.
- B. Leloa, ezetza, deskribapena.
- C. Leloa, ekintza, lagunaren hitzak
- D. Ez dute egitura antzekorik

11. Kanta honetan azaltzen da:

- A. Lagunen arteko eguneroko elkarriketa.
- B. Idazlearen barruko pentsamendua.
- C. Bizitzan inoiz gertatzen ez dena.
- D. Istorio bat, besterik ez.

12. "Laprast eroriko zara lurrera" honela ere esan genezake:

- A. Kolpe bat hartuko duzu.
- B. Mina hartuko duzu.
- C. Irristatuko zara lurrera.
- D. Futbolean ari bazara eroriko zara.

13. Pentsatu eta idatzi beste izenburu bat kantarako, izenburu honekin kantaren mezua adierazi behar duzula kontuan hartuz:

.....

.....

.....

14. Poesiek tonu desberdinak adierazi ohi dituzte, nahiz eta batzuetan zaila izan bat soilik aukeratzea. Aukeratu ondorengo multzoetan poesia honen tonua egokien adieraziko luketen hitzak:

- A. Goraipatzailea, laudoriotsua
- B. Ironikoa, satirikoa
- C. Fantastikoa, absurdoa
- D. Hausnartzailea, erreflexiboa

15. Poemaren azken paragrafoan zera dio: “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo bada”. Hori bera honela adierazi daiteke:

- A. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo beharbada”.
- B. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo ba”.
- C. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo akaso”.
- D. “bihar, bihar ez dizut kasurik egingo badaezpada”.